

Soraluzeko

XXXIX. IDAZLAN LEHIAKETA

D maila



SORALUZEKO
UDALA

Bakarrik

D maila

1. saria

MALEN UGALDE

ALBERDI

Koldok motorra itzali zuen leku aproposera iritsi zela pentsatu zuenean. Itsasoa bare-bare zegoen, zerua urdin-urdin eta Kantea, bere txipironera maitea, garbi-garbi. Itsasoa txipironeraz, ontzi txikiz eta ontzi handiagoz beteta zegoen. Denak zeuden berdelak arrantzatzeke irrikaz martxoko egun eder horretan. Koldok bere anaia Tomasek beti esaten zuen esaldi famatua gogoratu zuen: "Al verdel, duro con él!" Izugarritzko barreak botatzen zituzten Koldok eta Agustinek Tomasen esaldi honekin. Tomasekin orokorreetan. Koldok asko botatzen zituen faltan bere bi anaiak, urte asko ziren azken aldiz ikusi zituenetik. Urte asko pasa ziren hil zirenetik. Tomas hil zenean, Agustin hil eta hiru urtera, gelditu zen Koldo bakar-bakarrik.

Arrantzale guztiak zeuden poz-pozik berdelak zirela eta. Denak zeuden pozik Koldo izan ezik. Koldo triste bizi zen. 85 urte bete zituen goiz hartan. Ez zuen inork zoriondu, inork ez zekien eta. Xamurragon, bere herrian, gazteak ikusten zituen soilik. Ezagutzen ez zituen gazteak. Bere lagun gehienak hilda zeuden. Kuadrillako 10 pertsonatik bi zeuden bizirik soilik. Bat bera, eta bestea Beñat, Lesakan bizi zen laguna.

Pare bat berdel eta lau salbera arrantzatu zituen hiru ordutan, nahiko gaizki berarentzat. Gorroto zituen salberak. Bat-batean: "Agur Koldo!" Eider zen, bere ilobaren lagun bat. Koldok iloba bat zeukan, Agustinen semea. Bera zen zeukan familia kide bakarra, baina hau ez zuen askotan ikusten Sidneyn bizi zen eta. Eider oso neska jatorra zen eta ilusio handia egin zion honek agurtu izanak.

Koldok aurrera egin zuen Kantearekin. Petit, ontzi handi-handi bat pasa zen bere albotik. Hori bai jabe txotxoloa, Petit izena hain ontzi handi bati jartzea ere...

Aurrera egin eta bakarrik gelditu zen itsasoan. Urteek aurrera egin zuten eta berak bakarrik bukatu zuen. Felitxuk eta berak seme-alabak izan balituzte... baina ezin izan zuten. Urte askoz saiatu ziren guraso izaten, baina ez zuten modu naturalean izatea lortu, adopzio prozesua konplikatuagia zen eta haurdun gelditzeko beste metodoak garestiegiak ziren Xamurragoko arrantzale xume batentzat.

Itsasoari begira gelditu zen. Orduan, pentsatu zuen: "Botako naiz? Guzti honekin bukatuko dut?" Agian bai, baliteke, litekeena da, apika.

Bat-batean Xibarta balea ikusi zuen urrunean. Felitxuren animalia gustokoena. Asko botatzen zuen faltan Felitxu, asko. 8 urte pasa ziren hil zenetik. Etxetik zehar ibiltzeak triste jartzen zuen, emaztearen liburuak, pianoa, arropak, argazkiak... ikusten zituen. Hau dena ikustean bakar-bakarrik zegoela hobeto gogoratzen zuen. Felitxuren liburu gogokoena hartzen zuen egunero, "Amonaren ipuinak" izenekoa. Felitxuren ahizpak, Maialenek, idatzi zuen haur bat zenean. Ez zen liburu bikaina, haur batek idatzitakoa zen, baina Koldori gustatzen zitzaion haurren liburu hori irakurtzea. Bere gaztaroa gogorarazten zion.

Erabakia hartu zuen, "bota egingo naiz, guzti honekin bukatuko dut" pentsatu zuen. Baina botatzera zihoala berriz ikusi zuen Xibarta. "Seinale bat izango al da ni ez botatzeko?". Handik bi segundurahau entzun zuen: "Osaba! Zorionak!" "Joe, Koldo, ez nekien zure urtebetetzea zenik, zorionak!" Bere iloba ikusi zuen Eiderrekin batera bere txipironeran. Bai, Xibarta seinale bat zen. Une hartan izugarrizko poza sartu zitzaion barruan. Bakarrik ez zegoela sentitu zuen.

- Zergatik zaude hemen? -galdetu zion Koldok Agustinen semeari.

- Hona nator bizitzera, Xamurragora! Australian nuen lan kontratua amaitu eta hona etortzeko ordua heldu zait. Datorren astean etorri behar nintzen, baina gaur zure urtebetetzea denez, zuri sorpresa bat egitera etorri naiz. Zer? Ez al zaude pozik?

Koldo negar batean hasi zen bere iloba bakarraren hitzak entzutean, eta guztiarekin bukatzeko asmo hura bat-batean pikutara joan zen. Hain beste hunkitu zen, ez zela bere ilobari erantzuteko gai izan, baina honek ongi ulertu zuen bere osaba eta ez zuen hitzik behar izan erantzun bat jasotzeko.

-Beno, zer? Mahai bat hartu dut hiru pertsonarentzat Onintzaren tabernan zure urtebetetzea ospatzeko. Beñat zure kuadrillakoa ere etorri da zuregatik! Baina hura portuan gelditu da, ez dagoela itsasora irtetzeko moduan dio. -esan zion Agustinen semeak.

-Ez al dator Eider gurekin? -hau izan zen Koldok esan ahal izan zuen lehen esaldia negar artean. Beñat etorri izanak gehiago hunkitu zuen.

-Aii, eskerrik asko, Koldo. Oso gustora bazkalduko dut zuekin batera.

Bi txipironerek, Kanteak eta Urgabik (Eiderren txipironerak) porturako bidea hartu zuten. Bertan, bi ontzi txikiak lehen pantalanean gelditu ziren, eta Beñatekin elkartu ziren. Koldok izugarrizko besarkada eman zion bere lagunari.

-Zergatik etorri zara? -galdetu zion 85 urte bete berri zituen gizonak kuadrillakoari.

-Zure urtebetetzea delako, gizona! Gainera, noiz izan zen ikusi ginen azkenengo aldia, Tomasen hiletan?

-Bai, uste dut baietz.

-Ba tira gizona, bazen garaia berriz ere elkartzeko! Eiderrek ekarri nau, ze neska jatorra! Eta beno, zu ere bai... -esan zion Agustinen semeari.

Barre egin zuten, eta laurak, (Koldo, Beñat bere iloba eta Eider) tabernara joan ziren bazkaltzera, eta batez ere, Koldoren urtebetetzea ospatzera.

Handik aurrera Koldo alaiago bizi izan zen. Agustinen semearekin oso erlazio ona zeukan, eta ia egunero bazkaltzen zuen honekin batera. Gainera, asko hitz egiten zuen telefonoz Beñatekin, lehen zeukaten erlazio ona berreskuratu nahi zuten. Kalera ateratzen hasi zen, apur bat ibiltzeko eta herriko jendea hobeto ezagutzeko.

Noski, arrantzatzen jarraitu zuen, baina salberarik ez. Koldok salberak gorrotatzen jarraitu zuen. Behin salbera batek haginka egin ziola hatz batean esaten zuten portuan. Eta ez soilik lehen pantalanean, hirugarren pantalaneko jendeak ere bazekien hau! Hau Koldo asko lotsatzen zuen gai bat zen, bera moduko arrantzale bati salbera txiki batek haginka egitea ere... Baina beno, bera ziur zegoen hau ez zekiela portu osoak, Petit-en jabeak ez zuen hau jakingo.

Bakarrik sentitzen zenean, Kantea hartu, itsasora joan eta ingurura begira gelditzen zen Xibarta balearen bila. Hau egiten zuen bakoitzean ikusten zuen balea hau, beti-beti. Honi esker ez zen hain bakarrik sentitzen, eta bizitzari aurre egiteko indar gehiago lortzen zituen.

Oroitzapenak

D maila
2. saria
ZALOA GARCÍA
RODRIGUEZ

Gaur goizean buruko min handiarekin esnatu naiz, aire freskoa hartzeko beharra nuen; beraz, arropak jantzi eta herriko mendi altuena igotzen hasi naiz. Lasai-lasai nire musikarekin, ni bakarrik nengoen oso goiz zelako, horregatik gustatzen zait hain goiz joatea mendira.

Arnasestuka heldu naiz tontorrera, masaiak gorri nituela uste dut. Goitik mundua beste modu batera ikusten da, lainoak oso gertu sentitzen ditut eta hori asko gustatzen zait. Menditik jaitsi aurretik zuhaitzen artean eseri naiz, eta bat-batean zuhaitz batetik karameloak jausi dira. Nire aitxixak zuhaitzetatik karameloak botatzen ditu, ezkutatu egiten da beti, eta bota egiten ditu gu zoriontsu ikusteko. Irribarren handi bat irten zait, karamelo batzuk hartu eta herrira jaisten hasi naiz.

Jaisten nengoela txapliguak entzun ditut, ahaztuta nengoen baina gaur nire herriko jaiak hasiko dira, eta urtero bezala txapliguak botatzen dituzte. Niri beldur handia ematen dit txikitatik, dardarka hasi naiz eta ez nekien zer egin. Aurrera begiratu dut, eta beti bezala zu zeunden nire aurrean ni babesteko. Zure besarkadek pentsatzen duzuna baino askoz gehiago lasaitzen naute.

Sustoa pasa ostean, gutxi falta zitzaidan bidea bukatzeko eta ibiltzen jarraitu dut. Herrira heltzerakoan jendea oso pozik ikusi dut, dantzan, abesten, edaten... Giro bikaina zegoen, baina nik nahiago izan dut hondartzan bainu fresko bat hartzea. Egia esanda berotuta eta izerditan nengoen, goizean hotza egiten zuenez, fraka luzeak nituen jantzita, baina orain bero handia zegoen. Eskerrak atzo piszinaan erabili nuen bainujantzia motxilan zegoela oraindik, bestela ezin izango nintzateke bainatu. Nahiz eta nire amak ez onartu, desordenatua izateak, baditu bere alde onak ere, ez? Gehiegi pentsatu gabe motxila hondarretan utzi eta uretara joan naiz. Hor ikusi zaitut berriro, nire zain, uretan, aitxitxa. Baina orain badakit igeri egiten aitxitxa, lau urte nituela erakutsi zenidan eta ez zait ahaztu, uste dut gauza hoiek ez direla inoiz ahazten. Uretan sartu naiz, ura bikain zegoen eta igerian hasi naiz, aitxitxa atzean gelditu da, polikiago eta lasaiago ibiltzen delako igerian. Azkenean itsasotik irten, arropak jantzi eta etxera joan naiz dutxatzera.

Etixerako bidean beste pertsona bat sentitzen nintzen, hobeto nengoen. Urte osoa egon naiz herriko jaien zain, baina orain heldu direla, ez zaizkit hainbeste inporta. Gogo handia daukat, noski, baina beste gauza batzuk ditut buruak jaiez gain.

Oroitzapenek esnatu naute ametsetan nengoela.

Ohetik jaiki naiz aldeetara begiratu dut, ez nengoen mendian, ezta hondartzan ere. Ametsetan nengoela, aitxixak bizirik jarraitzen zuela pentsatu dut, baina ez... Negarrez hasi naiz, hain pozik bizi nintzen bere ondoan... Gauza asko erakutsi dizkit nire bizitzan zehar, baina batez ere zoriontsu izatera erakutsi dit. Hemendik aurrera zaila egingo zait zoriontsu bizitzea, baina saiatuko naiz.

Istorio guztiek amaiera bat daukatela esan omen dute, baina gureak ez du inoiz amaierarik izango, badakit berriz elkartuko garela eta berriz besarkatuko zaitudala.

Gaueko jostailu-denda

D maila

3. saria

AMUITZ PÉREZ
LIZARRALDE

Jostailu-denda batean egunero jostailuak iratzarri egiten dira, eta elkarrekin jolasten eta kontu-kontari aritzen dira. Jostail-dendan, jostailu lagun-talde bat dago, eta elkarrekin izugarrizko abenturak izaten dituzte. Lagun-taldean Txakurtxoa, Hartza, Txontxongilo hirukiak, Katua eta Barbi daude. Txakurtxoa txakur zuri eta marroi bat da, oso alai eta lagunkoia. Hartza hartz marroi bat da, lagun ona, baina batzutan oso burugorria eta zakarra. Txontxongilo hirukiak kolore alaiak margotutako txontxongiloak dira. Oso despistatuak dira, inozenteak eta beti-beti elkarrekin daude; kolaz itsatsita egongo balira bezala. Katua katu beltz begi berdedun bat da. Oso azkarra eta umoretsua, beti baitago txistek botatzen. Azkenik Barbi dago, Barbi beste Barbi guztien antzera neska eder ile oria da. Oso argia da, eta lagun ona.

Gaur gau horietako batean bizi izan zuten istorio bat kontatzera nator. Jostailu dendako jabeak jostailu-denda ixtean bertako jostailu guztiak kolpean iratzarri ziren. Betiko moduan lagun-taldea elkartu egin zen eta gaueko plana pentsatzen hasi ziren. Txakurtxoari salto-salto berria probatzea bururatu zitzaion, dibertigarria izango zela pentsatu zuen. Lagun-taldekoek ideia bikaina iruditu zitzaion. Beraz, salto-salto denen artean jostailu denda erdira eramane zuten, lasaiago salto egin ahal izateko. Ondoren lagun-talde osoa salto-saltora igo eta saltoka hasi ziren. Denak alai-alai ibili ziren saltoka, baina bat-batean Txontxongilo hirukiak salto erraldoi bat egin zuten batera, eta nahi gabe salto-saltoan berriz jaustean, inertziak, Txakurtxoa eta Hartza jaurti zituzten. Horren besteko indarrez bota zituzten erakusleioa zeharkatu zutela eta kalera jauzi zirela.

Txakurtxoa eta Hartza kaleko lurrean botata gelditu ziren; izan ere, golpearen ondorioz kosta egin zitzaion altxatzea. Bitartean gainontzeko lagun-taldekoak erakusleioa hurbildu ziren, zelan zeuden ikusteko. Baina, ezin izan ziren kalera irten haien bila, erakusleioa zeharkatzerakoan egindako zuloa oso altu baitzegoen jostailuentzat, eta atea itxita zegoenez ez zeukaten beste modurik irten ahal izateko. Txakurtxoa eta Hartza altxatu ziren, eta ondo zeuden. Hori ikusterakoan gainontzeko jostailuak lasaitu egin ziren haien lagunak ondo baitzeuden.

aina, arazo larri bat zegoen, nola sartu behar ziren Txakurtxoa eta Hartza dendara? Barbi eta Katua berehala pentsatzen jarri ziren. Txontxongiloek bitartean Txakurtxoari eta Hartzari barkamena eskatzen jarraitzen zuten, oso gaizki sentitzen baitziren gertatutakoarengatik. Txakurtxoak segituan barkatu zien, istripu bat izan baitzen. Baina, Hartzari gehiago kostatu zitzaion, hasieran aipatu dudan bezala batzuetan burugogorra eta zakarra zen eta. Hala ere, Hartzak barkatu egin zien, eta bostak adiskidetu ziren.

Ordurako, Katuak eta Barbik plan bat pentsatuta zeukaten Hartza eta Txakurtxoa kaletik ateratzeko. Plana sinplea zen, baina haientzat ez zen gauzatzeko erraza. Plana hauxe zen: denen artean soka luze bat eta koltxoneta bat lortzea. Ondoren, koltxonetak lurtean jartzea, berriz minik har ez zezaten. Gero, soka erakusleihoan egindako zulotik jaurtitzea, eta haienganaino heltzea. Azkenik, Txakurtxoa eta Hartza sokaz lotu eta dendara berriz sartu.

Plana abian jarri zuten. Katua eta Barbi sokaren bila joan ziren, eta Txontxongiloak koltxonetaren bila. Txontxongiloek errez lortu zuten koltxoneta, baina Katuari eta Barbiri pixka bat gehiago kosta zitzaien soka lortzea. Izan ere, biltegiko goiko apalean zegoen gordeta, baina Katuak salto bat eginez bere hortzekin soka hartzea lortu zuen. Arrapaladan, erakusleihora joan ziren, txontxongiloek koltxoneta lurtean jarri zuten, eta Barbi soka egindako zuloan sartzen saiatzen ari zen. Halako batean, Barbik berak ere nola jakin gabe, soka zulotik pasatzea lortu zuen, eta Hartza eta Txakurtxoa zeuden lekuraino iritsi zen soka. Hartzak eta Txakurtxoak haien buruak sokara lotu zituzten, eta lagun-taldeak dendako beste hainbat jostailurekin batera sokari tiraka hasi ziren. Behin Txakurtxoa eta Hartza zuloraino eramanez ondoren tira egiteari utzi zioten, eta Hartzak eta Txakurtxoak bertatik koltxonetara salto egin zuten.

Lortu zuten! Txakurtxoa eta Hartza denda barruan zeuden! Txakurtxoak eta Hartzak jostailu guztiei eskertu zieten haiengatik egindakoa. Lagun-talde osoa berriz batera zegoen, baina gaur hartan nahikoa abentura bizi zituzten eta deskantsatzen pasa zuten gainontzeko gau zatia.